

SOLUZIOAK MAIATZA

Hona hemen maiatzean Euskal Herriko herri desberdinetako umeek beraien toki aldizkarietako jolasen txokoan aurkitu dituzten jolas desberdinen soluzioak.

Bilatu beraz, guztien artean zure herriko aldizkarian proposatu zaizkizun jolasei dagozkienak eta dagoen aukera zabala ikusita, gehiagoren gogoarekin geratu bazara, zure aldizkariaren hurrengo alea iritsi bitartean jolasten jarrai dezakezu gure [jolas parkean](#).

Labirintoa

Etxe-txolarreak behoko teiltatupean egin nahi du habia. Lagun iewaiozu haraino heltzen. Horretarako, habia egiteko baliatuko dituen elementuak jarraitu beharko dituzu, orden honetan: belarra (1), hosto lehorra (2), lastoa (3) eta luma (4). Gogoratu laukiak banan-banan aurreratu behar direla, ezker, eskuin, gora edo behera eginaz, baina inoiz ez diagonalean.

Aurkitu duzu bidea? Hala bada, laukiz lauki pasa dituzun hizkiak batu eta esatera zahar bat osatuko duzu: **MAIATZA, URTE GUZTIAREN ARDATZA**

Handitik txikira

Zazpi hosto hauek denak indigaztairondoarenak dira. Ordena itzazu handitik txikira, handienari 1 zenbakia emanez eta txikienerari 7.

Itzala

Margotu erlea eta arrosa eta aurkitu itzal zuzena.

Pareak bai!

Afrikako animalia ugari ezagutzen duzu. Froga ezazu orain, zenbat dakizun zure inguruko zuhaitzez. Lotu zuhaitz bakoitzari dagokion fruitua.

Sudokua

B	A	T	S	E	D
S	E	D	A	B	T
A	S	B	D	T	E
T	D	E	B	S	A
D	T	S	E	A	B
E	B	A	T	D	S

Ezagutzen al duzu udaberria esateko beste modurik? Beharbada zure herrian ez, baina BEDATSE ere esaten zaio, edo BEDATS. Osa itzazu sudokuarien lauki zuriek BEDATS hitza osatzen duten letrak kontuan hartuta (B, E, D, A, T eta S). Gogoratu, sudokua zuzena izan dadin, letra bakoitzak behin agertu behar duela zutabe, lerro eta area bakoitzeko.

IKUSI-MAKUSI

Horra gure aitona-amonen aitona-amonek beren haurtzaroon landatutako zuhaitza. Ikaragarri handitu da, ezta? Eta gainera, paisaiaren antzaldaketaren lekuko isila izan da. Ezer ez da lehen bezalakoa, baina badira hainbat elementu bi irudietan ageri direnak. Bederatzi dira. Ikusten al dituzu?